

Fernando Martinez (Tximela)

Koordinatzaileei elkarrizketa:

1. Datu orokor batzuk: enpresa zein den, noiztik dago martxan Euskara Plana, noiztik zara koordinatzaile, ...

TXIMELA, S.A.k 2006.urtean EMUNen eskutik bere Euskara Plana martxan jarri zuen. Aurretik ere eginak zeuden euskararen erabilaren aldeko zenbait ekintza, baina hauek egiten ziren planifikazio egoki baten faltan eta emaitzak eskasak ziren.

Enpresaren tamaina txikia da eta kasu hauetan honelako eginbeharrak administrazioko arloaren ardurapean geratzen dira. Horrela izan da gure enpresan eta Euskara Planaren koordinatzailea hasieran giza baliabideetako arduraduna izan zen eta lankide hau enpresa uzterakoan nik hartu dut ardura administrazioko zuzendari bezala, nahiz eta ez dudan nahi luzarorako izatea.

2. Euskararen nolako erabilera irudikatzen duzu zure lantegian 10 urte barru?

Gure abantaila gaur egun langile gehienak euskaldunak izatea da. Horrela da langileen %75ean. Hortik aurrera euskararen erabilera epe luzeko helburu bat izango da ziur. Hamar urte tarte luzea da eta aurrerapena handia izango da hasierarekin konparatzen badugu. Hala eta guztiz ere, asko geratuko da oraindik egiteko. Garbi dago enpresaren helburu nagusiak beste batzuk direla eta euskararen erabilera guztien aldetik ahalegin handia eskatzen duela.

3. Planak dituen kanpo babesak (dirulaguntzak, agiriak...) nahikoak iruditzen al zaizkizu? Zer behar da?

Diru laguntzak egokiak dira. Atera berri den Bikain ziurtagiria ere baikorra iruditzen zait. Nolabait euskararen normalizazioan emaitza onak erakusten dituztenei saritu egin behar zaie.

4. Eta barruko babesak? Zer falta da?

Gure kasuan enpresak emandako laguntza handia izan da, bai denboraz eta baita ekonomikoki ere.

Azken finean, Euskara Plana gure bezeroei eskainitako zerbitzuaren hobekuntza handiagoa lortzeko tresna gisa ulertu beharko litzateke.

5. Zergatik koordinatzaile? Zerk bultzatu zintuen Euskara Planeko lanetan konprometitzera?

Nere kasuan horrela etorri direlako gauzak. Hasieran behintzat ez nuen uste hainbesteko inplikazioa izan beharko nuenik, baina enpresa txikia izanik ez dago aukera handirik.

6. Zer nolako profila izan beharko luke koordinatzaileak bere lana egoki betetzeko? Profila esaten dugunean, formazioaz ari gara, pertsonaren dohainez ari gara, trebetasunez eta gaitasunez ari gara.

Ez dut uste profil berezi bat izan behar denik. Gogo onez parte hartzea da garrantzitsuena eta formazioa ez da goi mailakoa izan behar. Arlo batzuk bai hartu behar direla kontuan:

- Enpresaren ezagutza. Bere organizazioa eta pertsonak ondo ezagutu.

- Besteekin erlazionatzeko erraztasuna. Bileretan parte hartzeko ohitura.

7. Zer eman dizu koordinatzaile izateak? Zer ekarpen egin dizu postuak? Eta zerbait kendu al dizu?

Azkenean gauza guztietan bezala denbora da falta zaiguna. Ardura honek behar duen dedikazioa beste eginbeharretatik kendu behar da eta enpresa txikietan behintzat ez da erreza.

Koordinatzailea izatea Euskara Planean, beste edozein gaietan bezala, esperientzia polita da eta bakoitzaren formazioan interesantea. Azkenean ardura bat hartzea da eta emaitzak baikorrak direnean norberarekin harro egoteko arrazoia.

8. Zer zailtasun dituzu zure koordinatzaile lana aurrera eramateko? Zer falta zaizu?

Naiz eta euskalduna izan, batez ere idazteko momentuan arazoak ditut ondo eta arintasunez egiteko.

9. Koordinatzaile kargua hartu zenuenean, espero al zenuen egin beharreko lana horrela izango zela? Zerk harritu zaitu gehien?

Nere lankideen artean lan polita egin duten asko dago, baina hasieran uste izan nuen partizipazioa handiagoa izango zela. Konturatzen naiz hori ez dela erraza.

10. Beste zerbait esan nahiko bazenu